Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko abenduaren 31, ostirala — 250 — Viernes, a 31 de diciembre de 2021

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

16/2021 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duena.

Foru dekretu honen helburua da abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzea. Izan ere, asmoa da informatzeko betebeharra berriro ezartzea lurralde espainiarrean kokatutako erabilera turistikoko etxebizitzen lagapena eman eta hartzen duten pertsona eta entitateen artean bitartekariarena egiten duten pertsona eta entitateentzat. Erabilera turistikotzat hartzen da altzariz jantzita eta berehala erabiltzeko moduan hornituta dagoen etxebizitza bat osorik edo parte batean aldi baterako lagatzea, hura merkaturatzen edo sustatzen den kanala edozein izanik ere eta doan edo kostu bidez eginik ere.

Lehenagotik betebehar hori zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duen otsailaren 19ko 3/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen, baina EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoak abenduaren 11ko 398/2020 epaiaren bidez bertan behera utzi zuen xedapen hura (ediktua 2021/03/29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen), 3/2019 Foru Dekretuaren artikulu bakarraren hiru apartatuari dagokionez. Alegia, bertan behera utzi zuen abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduari 72 ter artikulua erantsi izana, zeinaren bidez erabilera turistikoko etxebizitzen erabilpenaren lagapenaz informatzeko betebeharra ezartzen zen.

Epai horren zuzenbidezko laugarren oinarrian aipatzen da zergatik utzi duen bertan behera Auzitegi Gorenaren uztailaren 23ko 1106/2020 epaiak abenduaren 29ko 1070/2017 Errege Dekretuko 1. artikuluaren 11. apartatua, zeinaren bidez 54 ter artikulua gehitu zitzaion uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuari, zergak kudeatu eta ikuskatzeko jarduketa eta prozedurei eta tributuak aplikatzeko prozeduren arau erkideak garatzeari buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duenari. Bertan behera uzteko arrazoia izan zen prozeduraren barruan irailaren 9ko 2015/1535 (EB) Zuzentarauaren 5.1 artikuluan jasotako obligazioa ez betetzea aipatutako errege dekretua onetsi zenean. Izan ere, artikulu horren bidez Europako Batzordeari informazio betebehar bat ezartzen zaio erregelamentazio teknikoen arloan eta informazioaren gizarteko zerbitzuei buruzko arauen arloan.

Hori horrela, betebehar hura ezartzea ekarri zuten arrazoi nagusietako bat (zerga iruzurraren prebentzioa) indarrean dago orain ere. Beraz, beharrezkoa da betebehar hori jaso eta ezartzen duen xedapen berri bat onestea, aurreko prozeduran egin ez zen izapidea kontuan hartuta.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Decreto Foral 16/2021, de 28 de diciembre, de modificación del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre.

El presente decreto foral tiene por objeto modificar el Reglamento que desarrolla determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, con el propósito de establecer nuevamente la obligación de información para las personas y entidades que intermedien entre personas y entidades cedentes y cesionarias de viviendas para uso turístico situadas en territorio español, entendiéndose por tal la cesión temporal de uso de la totalidad o parte de una vivienda amueblada y equipada en condiciones de uso inmediato, cualquiera que sea el canal a través del cual se comercialice o promocione y realizada con finalidad gratuita u onerosa.

Anteriormente dicha obligación fue establecida por el Decreto Foral 3/2019, de 19 de febrero, de modificación del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, pero la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en la sentencia 398/2020, de 11 de diciembre, anuló dicha disposición en lo que afecta al apartado tres del artículo único del referido Decreto Foral 3/2019; esto es, la adición de un artículo 72 ter en el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, en el que se establecía la obligación de informar sobre la cesión de uso de viviendas para uso turístico (edicto publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 29/03/2021).

En el fundamento de derecho cuarto de la mencionada sentencia se alude al motivo de anulación expuesto en la sentencia del Tribunal Supremo 1106/2020, de 23 de julio, sobre el apartado 11 del artículo 1 del Real Decreto 1070/2017, de 29 de diciembre, que incorporó el artículo 54 ter al Real Decreto 1065/2007, de 27 de julio, por el que se aprueba el Reglamento General de las actuaciones y los procedimientos de gestión e inspección tributaria y de desarrollo de las normas comunes de los procedimientos de aplicación de los tributos. Dicho motivo no es otro que el de la omisión procedimental, en su aprobación, de la obligación establecida en el artículo 5.1 de la Directiva (UE) 2015/1535, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 9 de septiembre de 2015, que impone una obligación de información a la Comisión Europea en materia de reglamentaciones técnicas y de reglas relativas a los servicios de la sociedad de la información.

Dado que uno de los motivos fundamentales que impulsaron al establecimiento de la citada obligación, como es la prevención del fraude fiscal, persiste en el momento presente, resulta necesaria la aprobación de una nueva disposición que contenga y establezca dicha obligación, teniendo en cuenta el trámite omitido en el procedimiento anterior.

EK\CV GAO-I-2021-08392

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia.

72 ter artikulua gehitzen zaio abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduari. Hona hemen haren edukia:

«72 ter artikulua. Etxebizitza turistikoen erabilera lagapenari buruz informatzeko betebeharra.

1. Pertsonak eta entitateak bitartekari badira lurralde espainiarrean kokatutako etxebizitza turistikoak lagatzen eta hartzen dituztenen artean, hurrengo apartatuan ezarritako eran, aldian behin aitorpen informatibo bat aurkeztu behar dute bitartekari gisa parte hartzen duten erabilera lagapenei dagokienez.

2. Artikulu honetan aurreikusitako aitorpen informatiboaren ondorioetarako soil-soilik, etxebizitza turistikoen erabilera lagapentzat hartuko da altzariz hornitutako eta berehala erabiltzeko moduan dagoen etxebizitza baten erabilera osorik edo zati bat lagatzea aldi baterako, lagapena merkaturatu edo sustatzeko erabiltzen den kanala edozein dela ere, izan helburua doakoa izan kostu bidezkoa.

Kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira:

a) Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legean definitzen diren etxebizitza errentamenduak, eta etxebizitzen azpierrentamendu partzialak, lege horren 8. artikuluan aipatua.

b) Berariazko araudiaren arabera arautzen diren turismo ostatuak.

Ondorio hauetarako, ez dira geratuko kontzeptu honetatik kanpo ez erabilera turistikoko etxebizitzak, ez erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logeletan ostatu emateko lekuak, hain zuzen ere uztailaren 28ko 13/2016 Legeak, Turismoari buruzkoak, 53. eta 54. artikuluetan, edo beste lurraldeetako antzeko xedapenetan, arautuak.

c) Ondasun higiezinen txandakako aprobetxamendu eskubidea.

d) Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 5. artikuluko erabilerak eta kontratuak, salbu eta aurreko b) letran baztertu ez diren turismo ostatuen lagapenak.

3. Bitartekaritzat joko dira aurreko apartatuan aipatutako erabilera lagatzen eta hartzen duenaren artean bitartekaritza zerbitzua egiten duten pertsona edo entitate guztiak, zerbitzu hori kostu bidezkoa izan zein doakoa izan.

Zehazki, halakotzat hartuko dira plataforma kolaboratibo gisa eratuak izanik aurreko apartatuan aipatutako erabilera lagapenean bitartekaritza egiten duten pertsonak edo entitateak, baldin eta informazioaren gizarteko zerbitzu emailetzat hartuta badaude uztailaren 11ko 34/2002 Legeak, informazioaren gizarteko zerbitzuei eta merkataritza elektronikoari buruzkoak, ezarritako baldintzetan, alde batera utzita bitartekaritzaren xede den zerbitzua beraiek egiten duten, edo zerbitzua lagatzen edo hartzen dutenei baldintza jakin batzuk ezartzen dizkieten, hala nola prezioa, aseguruak, epeak edo bestelako baldintza kontraktualak.

4. Aitorpen informatiboak datu hauek jaso beharko ditu, oro har:

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo único. Modificación del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre.

Se adiciona un artículo 72 ter al Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, con el siguiente contenido:

«Artículo 72 ter. Obligación de informar sobre la cesión de uso de viviendas para uso turístico.

1. Las personas y entidades que intermedien entre personas y entidades cedentes y cesionarias de viviendas para uso turístico situadas en territorio español, en los términos establecidos en el apartado siguiente, vendrán obligadas a presentar periódicamente una declaración informativa de las cesiones de uso en las que intermedien.

2. A los exclusivos efectos de la declaración informativa prevista en este artículo, se entiende por cesión de uso de viviendas para uso turístico la cesión temporal de uso de la totalidad o parte de una vivienda amueblada y equipada en condiciones de uso inmediato, cualquiera que sea el canal a través del cual se comercialice o promocione y realizada con finalidad gratuita u onerosa.

Quedan excluidos de este concepto:

a) Los arrendamientos de vivienda tal y como aparecen definidos en la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos, así como el subarriendo parcial de vivienda a que se refiere el artículo 8 de la misma ley.

b) Los alojamientos turísticos que se rigen por su normativa específica.

A estos efectos, no tendrán la consideración de excluidas las viviendas para uso turístico, ni los espacios donde se preste el servicio de alojamiento en habitaciones de viviendas particulares para uso turístico, regulados en los artículos 53 y 54 de la Ley 13/2016, de 28 de julio, de Turismo, o en disposición análoga de otros territorios.

c) El derecho de aprovechamiento por turno de bienes inmuebles.

d) Los usos y contratos del artículo 5 de la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos, salvo aquellas cesiones de alojamientos turísticos no excluidos en la letra b) anterior.

3. Tendrán la consideración de intermediarias todas las personas o entidades que presten el servicio de intermediación entre persona o entidad cedente y cesionaria del uso a que se refiere el apartado anterior, ya sea a título oneroso o gratuito.

En particular, tendrán dicha consideración las personas o entidades que, constituidas como plataformas colaborativas, intermedien en la cesión de uso a que se refiere el apartado anterior y tengan la consideración de prestadoras de servicios de la sociedad de la información en los términos a que se refiere la Ley 34/2002, de 11 de julio, de servicios de la sociedad de la información y de comercio electrónico, con independencia de que presten o no el servicio subyacente objeto de intermediación o de que se impongan condiciones a las personas o entidades cedentes o cesionarias tales como precio, seguros, plazos u otras condiciones contractuales.

4. La declaración informativa contendrá, con carácter general, los siguientes datos:

EK\CV GAO-I-2021-08392

a) Erabilera turistikorako lagatako etxebizitzaren titularraren identifikazioa (pertsona edo entitatea), baita etxebizitza erabilera turistikorako lagatzeko baliatutako eskubidearen titularrarena ere (desberdinak badira).

Identifikazio hori egin ahal izango da izen-abizenak, sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziz, edo, bestela, dagokion aitorpen eredua onartzen duen foru aginduan ezarritakoari jarraituz.

Ondorio horietarako, lagapen eskubidearen titulartzat hartuko dira erabilera turistikorako lagatzen diren etxebizitzen gainean jabetza eskubidearen, multijabetza kontratuen, denbora partzialeko jabetza edo antzeko formulen, errentamendu edo azpierrentamenduaren edo beste edozein erabilera edo gozamen eskubideren titular gisa ageri direnak, baldin eta beraiek badira, azkenik, aipatutako etxebizitzaren erabileraren lagatzaileak.

b) Higiezinaren identifikazioa, helbide osoa eta haren erreferentzia katastrala edo zenbaki finkoa adieraziz, edo, bestela, dagokion aitorpen eredua onesten duen foru aginduan ezarritakoari jarraituz.

c) Lagapen hartzaile diren pertsona edo entitateen identifikazioa, bai eta erabilera turistikorako etxebizitzaren gozamen egun kopurua ere.

Identifikazio hori egingo da izen-abizenak, sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziz, edo, bestela, dagokion aitorpen eredua onesten duen foru aginduan ezarritakoari jarraituz.

Ondorio horietarako, erabilera turistikoko etxebizitzaren lagatzaileek kopia batean gorde behar dute zerbitzuaren onuradunen identifikazio agiria, gorago aipatua.

d) Etxebizitza turistikoa erabiltzeko eskubidea laga duen pertsona edo entitateak jasotako zenbatekoa, edo, doan egin bada, horren aipamena.

5. Dagokion aitorpen eredua onesten duen foru aginduak ezarriko du zein epetan aurkeztu beharko den aitorpena, eta aurreko apartatuan aipatzen den informazioa jasoko du, bai eta informazio hori emateko garrantzitsutzat jotzen den beste edozein datu ere.»

Azken xedapenetako lehena. Gaikuntza.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari baimena ematen zaio foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau 2022ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Donostia, 2021eko abenduaren 28a.

Diputatu Nagusia,
Markel Olano Arrese.

Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatua,
Jokin Perona Lerchundi. (8392)

a) Identificación de la persona o entidad titular de la vivienda cedida para uso turístico, así como de la titular del derecho en virtud del cual se cede la vivienda para uso turístico, si fueren distintas.

La identificación se realizará mediante nombre y apellidos o razón social o denominación completa y número de identificación fiscal o en los términos de la orden foral por la que se apruebe el modelo de declaración correspondiente.

A estos efectos, se considerarán como titulares del derecho objeto de cesión quienes lo sean del derecho de la propiedad, contratos de multipropiedad, propiedad a tiempo parcial o fórmulas similares, arrendamiento o subarrendamiento o cualquier otro derecho de uso o disfrute sobre las viviendas cedidas para uso turístico, que sean cedentes, en última instancia, de uso de la vivienda citada.

b) Identificación del inmueble mediante la indicación de su dirección completa, con especificación del número de referencia catastral o número fijo, o en los términos de la orden foral por la que se apruebe el modelo de declaración correspondiente.

c) Identificación de las personas o entidades cesionarias, así como el número de días de disfrute de la vivienda para uso turístico.

La identificación se realizará mediante nombre y apellidos o razón social o denominación completa, y número de identificación fiscal o en los términos de la orden foral por la que se apruebe el modelo de declaración correspondiente.

A estos efectos, los cedentes del uso de la vivienda para uso turístico deberán conservar una copia del documento de identificación de las personas beneficiarias del servicio, anteriormente señalado.

d) Importe percibido por la persona o entidad titular cedente del derecho de uso de la vivienda para uso turístico, o en su caso, indicar su carácter gratuito.

5. La orden foral por la que se apruebe el modelo de declaración correspondiente establecerá el plazo de presentación y contendrá la información a que se refiere el apartado anterior, así como cualquier otro dato relevante al efecto para concretar aquella información.»

Disposición final primera. Habilitación.

Se autoriza al diputado o a la diputada foral del departamento de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente decreto foral.

Disposición final segunda. Entrada en vigor.

El presente decreto foral entrará en vigor el 1 de enero de 2022.

San Sebastián, a 28 de diciembre de 2021.

El Diputado General,
Markel Olano Arrese.

El Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas,
Jokin Perona Lerchundi. (8392)

EK\CV GAO-I-2021-08392